Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko otsailaren 10ean aurkeztu zuten beharrezko dokumentazio osoa, eta udal arkitektoak 2026ko martxoaren 24an egin zuen txostena. Azken horretan, lehenengoaren esku hartzea honako hau izango zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*“Konpondu beharreko egitura 2. eskuineko etxebizitzaren barrualdetik ikus daiteke. Bertan, aldez aurretik sabai faltsua, akaberak eta trenkada desmuntatu dira. Eraikinaren gainerako egitura ez dago ikusteko moduan, eta, beraz, ez da egoera aztertu.*

*Elementu hondatuak hauek dira: ekialdeko egurrezko hiru habexka, erdiko zutabearen eta goiko habearen arteko lotura, etxebizitzaren ipar-mendebaldeko*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

*pilarea eta etxebizitzaren sarrebidearen gainean dagoen sabai-zatia, zeramikazko gangatila duena.*

*Era berean, iparraldeko mehelinaren mendebaldean habe bat sendotzea aurreikusi da.*

*Hondatutako elementuen patologia nagusia zuraren usteltzea da eta, ondorioz, sekzioa galdu da. Hori dela eta, hondatutako elementuak metalezko profilez ordezkatuko dira.*

*UPN-120 profilak instalatzea aurreikusten da, kaltetuta eta lehendik dagoen solibari ainguratuta eta M14 hagaxka hariztatuekin 30 cm-tik behin hiruzuloka. Era berean, UPN-140 profil bikoitza instalatuko da hondatutako zutabean. Azkenik, zeramikazko gangatiladun zapi hondatua aurkitu denez etxebizitzako sarbidean, IPN-120 profilak instalatzea aurreikusi da habeartean, zurezko soliben ordez. Horretarako, 80 x 10 mm-ko zeharkako ebakidurako hagun laua erabiliko da, IPN-120z soldatuta. Hagun horrek aurretik dagoen soliberia zeharkatuko du, eta egur ustela kenduko da, azpiko zeharkako hagunaren aurreko soliberia-karga transmitituko duten kaltzak instalatzeko.*

*Instalatu beharreko profil metalikoaren babesari dagokionez, kartoi igeltsuzko sabai faltsua eta 60 mm-ko lodierako harri-artilezko xafla bat berrinstalatzea aurreikusten da, profil metalikoari suaren aurkako erresistentzia nahikoa ematen diona. Amaierako suarekiko erresistentziak R60 izan beharko du, sabai faltsua eta harri-zuntza instalatu ondoren."*

Bigarrena.- 2026ko martxoaren 24an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

***"Proposamena***

*Proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, ez baitu eraikinaren eraikuntza-parametroak aldatzen. Beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko. Nolanahi ere, ondorengo baldintzak bete beharko dira:*

- *Orokorrak:*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- *Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.*
- *Lizentzia ezin izango da erabili onuradunek beren jardunean izan dezaketen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.*
- *Lizentzia ondoriorik gabe geratuko da, baldin eta haren mende dauden baldintzak betetzen ez badira, eta ezeztatu egingo da lizentzia ematea eragin zuten inguruabarrak desagertzen direnean edo, halakorik izan balitz, lizentzia ukatzea justifikatuko zuketen beste inguruabar batzuk sortzen direnean.*
- *Jabari publikoa okupatuz gero, kontainerrekin edo aldamioekin adibidez, ez du lizentzia honek babestuko, eta, beraz, dagokion lizentzia eskatu beharko da, modu independentean. Kontainerraren kokapena Udaltzaingoarekin adostu beharko da.*
- *Udalari jakinarazi beharko zaio obra-lizentziaren titulartasun-aldaketa oro, bai lehengo titularrak bai berriak izenpetutako eskabidearen bidez, zeinak berariaz bere gain hartuko baititu, dokumentu horretan, lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Horiek eskritura publikoan jasotzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.*
- *Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.*
- *Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta bi (2) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.*

  *Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.*

  *Epe horiek betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat eta ondoriorik gabe*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*deklaratuko da, eta, aldi berean, obrak dauden egoeran geldiarazteko betebeharra izango du, zehapena ohartarazita, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, horiek Udalak gainbegiratuta egingo baitira.*

*Lizentziaren titularrak, bi epeetako edozein amaitu baino hilabete (1) lehenago gutxienez, epe horiek luzatzeko eskatu ahal izango du, atzerapenaren arrazoiak behar bezala justifikatuta egongo diren eskabide baten bidez. Goian adierazitako epe bakoitzeko luzapen bat eta, gehienez, luzapen horren erdia emango da.*

*Hala ere, luzapen hori ezinbesteko arrazoiek eragindako atzerapenei kalterik egin gabe emango da. Atzerapen horiek, nolanahi ere, behar bezala argudiatu beharko dira Udalean, idatziz.*

- *Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.*
- *Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari aldez aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio, eta gorabehera horien erantzuletzat joko da.*
- *Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.*

  *Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea izango da; udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.*
- *Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak.*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- *Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.*

- *Obra hasi aurretik:*

  - *Eraikuntza, Instalazio eta Obraren gaineko zerga eta lizentzia emateagatiko tasa likidatzea. Tasa horiek behar den moduan eta epean ordaindu beharko dira.*

    *Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, obren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.*

    *Tasa ordaindu beharra lizentzia ematearekin batera gertatzen da, obrak egin ala ez.*

  - *112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.*

  - *Interesatuak Udaleko agintari eta funtzionario eskudunen eskueran proiektuaren ale bat izan beharko du, behar bezala zigilatua eta onartua.*

- *Obrak dirauen bitartean:*

  - *Onartutako proiektuan edozein aldaketa egin aurretik, hala badagokio, Udalak baimena eman beharko du, eta, horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, behar den aurrerapenarekin eta arauzko baldintzetan.*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- *Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:*

  - *Obrak amaitu ondoren, Udalari jakinarazi beharko zaio.*

  - *Egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa aurkeztu beharko da. Agiri horrekin batera, kalitate-kontrolaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoria batekin. Baita, sustatzailearen adostasunarekin obran zehar egin diren aldaketen deskribapena, lizentziaren baldintzekin bateragarriak direla adieraziz; eta obra egin bitartean egindako kontrolen zerrenda eta emaitzak.*

    *Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau argazki aurkeztuko dira gutxienez.*

  - *112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.*

    *1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta* ***ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du****, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.*

    *2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:*

    *a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.*

*b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.*

*c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena."*

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko otsailaren 10ean aurkeztutako proiektua honako atalek osatzen dute:

- Deskripzio-, eraikuntza- eta justifikazio-memoria
- Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana
- Hondakinen kudeaketaren azterketa
- Kalitatea kontrolatzeko plana
- Baldintzen agiria
- Aurrekontua



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Planoak

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko urtarrilaren 22an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, apirilaren 21ean.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrek, gehienez ere, 2 hilabeteko epea izango dute.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exeuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez egon daitezke etenda interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia eman baino lehen honako fidantza hau aurkeztu beharko da udalean:

**1.- Hondakinen kudeaketa**

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (120,00 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **144,00** eurokoa izango da.

Aurrekarietan adierazten den legez, fidantzaren gordailu adierazpena espedientean ageri da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko otsailaren 10ean, 14262738R jaunak, Doniene Kalea 3 Jabe Elkartearen izenean, Doniene 3 eraikineko estrukturaren errefortzua eraberritzeko eskatutako obra baimena **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

- Orokorrak:
  - Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.
  - Lizentzia ezin izango da erabili onuradunek beren jardunean izan dezaketen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.
  - Lizentzia ondoriorik gabe geratuko da, baldin eta haren mende dauden baldintzak betetzen ez badira, eta ezeztatu egingo da lizentzia ematea eragin zuten inguruabarrak desagertzen direnean edo, halakorik izan balitz, lizentzia ukatzea justifikatuko zuketen beste inguruabar batzuk sortzen direnean.
  - Jabari publikoa okupatuz gero, kontainerrekin edo aldamioekin adibidez, ez du lizentzia honek babestuko, eta, beraz, dagokion lizentzia eskatu



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

beharko da, modu independentean. Kontainerraren kokapena Udaltzaingoarekin adostu beharko da.

- Udalari jakinarazi beharko zaio obra-lizentziaren titulartasun-aldaketa oro, bai lehengo titularrak bai berriak izenpetutako eskabidearen bidez, zeinak berariaz bere gain hartuko baititu, dokumentu horretan, lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Horiek eskritura publikoan jasotzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta bi (2) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.

  Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.

  Epe horiek betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat eta ondoriorik gabe deklaratuko da, eta, aldi berean, obrak dauden egoeran geldiarazteko betebeharra izango du, zehapena ohartarazita, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, horiek Udalak gainbegiratuta egingo baitira.

  Lizentziaren titularrak, bi epeetako edozein amaitu baino hilabete (1) lehenago gutxienez, epe horiek luzatzeko eskatu ahal izango du, atzerapenaren arrazoiak behar bezala justifikatuta egongo diren eskabide baten bidez. Goian adierazitako epe bakoitzeko luzapen bat eta, gehienez, luzapen horren erdia emango da.

  Hala ere, luzapen hori ezinbesteko arrazoiek eragindako atzerapenei kalterik egin gabe emango da. Atzerapen horiek, nolanahi ere, behar bezala argudiatu beharko dira Udalean, idatziz.



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.

- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari aldez aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio, eta gorabehera horien erantzuletzat joko da.

- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

  Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea izango da; udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

• Obra hasi aurretik:

- Eraikuntza, Instalazio eta Obraren gaineko zerga eta lizentzia emateagatiko tasa likidatzea. Tasa horiek behar den moduan eta epean ordaindu beharko dira.

  Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du,



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

obren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.

Tasa ordaindu beharra lizentzia ematearekin batera gertatzen da, obrak egin ala ez.

- 112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.
- Interesatuak Udaleko agintari eta funtzionario eskudunen eskueran proiektuaren ale bat izan beharko du, behar bezala zigilatua eta onartua.

• Obrak dirauen bitartean:

- Onartutako proiektuan edozein aldaketa egin aurretik, hala badagokio, Udalak baimena eman beharko du, eta, horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, behar den aurrerapenarekin eta arauzko baldintzetan.

• Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Obrak amaitu ondoren, Udalari jakinarazi beharko zaio.
- Egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa aurkeztu beharko da. Agiri horrekin batera, kalitate-kontrolaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoria batekin. Baita, sustatzailearen adostasunarekin obran zehar egin diren aldaketen deskribapena, lizentziaren baldintzekin bateragarriak direla adieraziz; eta obra egin bitartean egindako kontrolen zerrenda eta emaitzak.



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau argazki aurkeztuko dira gutxienez.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

  1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta **ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du**, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

  2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

  a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

  b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

  c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

HIRUGARRENA.- Obraren exekuzio materialaren aurrekontua 8.980,25 eurokoa da (8.644,25 euro hondakinen kudeaketa partida, segurtasun eta osasunerako partida eta kalitate kontroleko partida kenduta).



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

LAUGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun esklusibopean.

BOSGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

SEIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

## 5.- TALAKO ANDRA MARI 22 ERAIKINEKO IPARRALDEKO FATXADA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA ONARTZEA.

**Xedea**

Talako Andra Mari 22 eraikineko iparraldeko fatxada birgaitzeko obra lizentzia.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2024ko irailaren 25ean, 30603830F jaunak Talako Andra Mari 22 eraikinean fatxada birgaitzeko obra lizentzia eskatu zuen. Horretarako, M.C-k eginiko proiektua aurkeztu zuen.

Bigarrena.- 2026ko martxoaren 6an, udal arkitektoak txostena egin zuen. Haren esanetan, proiektua dagokion Elkargo Ofizialaren ikus onetsiarekin eta udal izapideak egiteko beharrezko dokumentazio guztiarekin aurkeztu zen. Horretan, memoriarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu zen:

- Memoria
- Aldamuen memoria
- Hondakinen Kudeaketa azterlana (1.086,76 €)
- Kalitatea kontrolatzeko plana
- Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana
- Baldintza plegua



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Aurrekontua eta neurketak
- Planoak

Aurkeztutako proiektuaren arabera, 44.714,61 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua (42.227,85 euro hondakinen kudeaketa partida, segurtasun eta osasunerako partida eta kalitate kontroleko partida kenduta).

Hirugarrena.- Fidantzen gordailu adierazpena espedientean ageri da.

Laugarrena.- 2026ko apirilaren 20an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Aurrekarietan esandakoaren arabera, 2024ko irailaren 25ean aurkeztu zen proiektua, eta 2026ko martxoaren 6an egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehen horren helburutzat ondorengoa jo zuen:

*“Eraikinaren iparraldeko fatxada birgaitzeko SATE sistema planteatzen da, oraingo akabera eta kolorearen antzekoa. Horrela, eraikinaren narriadura progresiboa eta zubi termikoetan egon daitezkeen kondentsazioak saihestuko dira.*

*Halaber, ateburuen estaldura konponduko da; horrez gain, balkoien hegalduretako armadura saneatuko da eta zaharberritu beharreko elementuaren hasierako bolumetria lehengoratuko da.”*

Bigarrena.- 2026ko martxoaren 6an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

***“Proposamena***

*Proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko. Nolanahi ere, ondorengo baldintzak eduki beharko dira kontuan:*

- *Espazio publikoaren okupazioak ez dakar haren titulartasun publikoa galtzea.*
- *SATE sisteman erabilitako materialek, suteen aurkako araudiari jarraituz, fatxadako lehenengo 3,50 metrotan, suarekiko erreakzio klasea B-s3,d0*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*izan behar dute. Altuera horretatik 18 metrora arte C-s3,d0 ezaugarriak izan beharko dituzte gutxienez.*

- *Fatxadaren birgaitzeak egungo fatxadaren koloreak eta itxura mantenduko ditu.*
- *112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.*
- *Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.*
- *Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.*
- *Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.*
- *Aldamioen kokapena Udaltzainekin ere adostu beharko da. Aldamioek hiri ingurunean 68/2000 dekretuak ezarritako irisgarritasun baldintzak beteko dituzte.*
- *Bermeoko HAPOaren IV. tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.*
- *Fatxadaren diseinuaren kalitatea eta kanpoko itxura kontuan izan beharko dira. Hori dela eta, egon daitezkeen kable elektrikoak, telefonokoak, e.a. fatxadatik kendu eta lurperatu egin beharko dira. Horretarako, lizentzia eskatzaileak harremanetan jarri beharko da instalazioen enpresa hornitzaileekin.*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- *Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak (DB-SI, DB-HE, DB-HS).*

- *Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.*

- *Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.*

- *Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta sei (6) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.*

  *Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.*

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko uztailaren 4an egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu: memoria teknikoa, planoak eta argazkiak, aurrekontua, kalitate kontrolaren plana, segurtasun eta osasunaren oinarrizko azterlana eta hondakinak kudeatzeko azterlana.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko martxoaren 6an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, apirilaren 23an.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 8 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia eman baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

**Fidantzak**

3. **Fidantza obra etxola eta komun kimikoa jartzeagatik**

Eremu publikoa okupatuko denez, **1.000,00** euroko fidantza jarri beharko da, herri jabariko ondasunetan eragin litezkeen kalteak ordaintzeko; edo, udalak kalteak konpontzeko emandako aginduak bete ezean, nahitaez egikaritzeko bitartekoak ordaintzeko.

4. **Hondakinen kudeaketa**

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (1.755,00 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **2.106,00** €-koa izango da.

Aurrekarietan esan bezala, fidantzen gordailu adierazpena espedientean ageri da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko uztailaren 4an, 72311544G andreak, Bizkaiko Jaurerria 5 jabe elkartearen izenean Bizkaiko Jaurerria 5ean kokatutako eraikinean irisgarritasun baldintzak hobetzeko eskatutako lanen obra baimena **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra baimena arkitektoaren txostenean ezarritako hauetara baldintzatzea:



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

“Aipatutako gutxieneko erabilgarritasun-parametroak betetzen ez direnez, espedientea Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari helaraziko zaio, jakinaren gainean egon dadin.

Bestetik, igogailuaren ibilbidea behe solairura arte iritsiko denez, alboko lokal hura okupatzeko forma juridikoaren arabera, ohartarazi, segregazioa bada soluzioa, hura udalean izapidetu beharko dela.

Nolanahi ere, eskatutako lanak gauzatzeko, ondorengo baldintzak eduki beharko dira kontuan:

Baldintza partikularrak

- Obrak hasi aurretik, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Obra zuzendaritzaren izendapena.

2. 2.106€ko fidantza jarriko da hondakinak egoki kudeatuko direnaren berme gisa (%120).

3. 1.000,00 euroko fidantza jarri beharko da, lanek irauten duten bitartean herri-jabariko ondasunetan eragin litezkeen kalteak ordaintzeko; edo, udalak kalteak konpontzeko emandako aginduak bete ezean, nahitaez egikaritzeko bitartekoak ordaintzeko.

- Igogailuaren ibilbidea behe solairura arte iritsiko denez, alboko lokal hura okupatzeko forma juridikoaren arabera, ohartarazi, segregazioa bada soluzioa, hura udalean izapidetu beharko dela.

- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta zortzi (8) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.

Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.

- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.

- Bermatu egingo da ezkaratza kanpoko maila berean egotea, eta horrela ez bada, neurriak hartuko dira irisgarritasun baldintzak betetzeko. Ezkaratzeko atearen igarotze-tartearen gutxieneko zabalera 0,90mkoa izango da; bi orriko ateak erabiltzen direnean, normalean irekitzen denak 0,90mko zabalerako pasagune libre bat utziko du

- Eskailera atalen zabalera librea ez da 0,80 m baino txikiagoa izango

- Eskailera mailen proportzioak bermatu egingo dute erabilera orokorreko eskaileren eskakizunak beteko dituztela.

- Kanpoaldean irisgarritasuna hobetzeko egiten diren lanek (esate baterako, eraikinaren fatxadan igogailua, plataforma jasotzailea, edo arrapala eta abar instalatzeko lanak) ez dituzte inoiz suhiltzaileen eraikinerako sarbide baldintzak murriztuko.

- Igogailura sartzeko solairuetako ateek tope elastikoak izango dituzte, atea ixtean markoaren kontrako inpakturik ia izango ez dela bermatzeko.

- Aginte-mahaia, abitze eta gelditze erreleak ditu, elastikoki muntatuta egongo da, inpaktuen zaraten eta bibrazioen isolamendu egokia izateko.

- Igogailuaren trakzio-sistemak eraikineko egitura-sistemetara ainguratzean, bibrazioak moteltzeko elementuak erabili behar dira. Igogailuaren esparrua, makineria haren barnean dagoenean, instalazio-esparru bat dela joko da isolamnedu akustikoari dagokionez. Makineria barnean ez dagoenean, igogailu bat eta erabilera-unitate bat banantzen dituzten elementuek 50 dB(A) > Ra zarata-murrizketaren indizea izan behar dute.

- 21A-113B eraginkortasuneko su-itzalgailuak eta larrialdietarako argiak jarriko dira solairu bakoitzean.

- Bermeoko HAPOaren IV. Tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.

- Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena.

(Besteak beste, DB/SUA, DB/SI, DB/SE, DB/HE, DB/HR,DB/HS).

- Egiturazko elementuek, eraikuntza elementuek eta estaldurek Eraikuntzako Kode Teknikoaren oinarrizko Segurtasun dokumentuan ezarritako suarekiko erresistentziak beteko dituzte.

- Igogailuak arau hauek bete behar ditu: igogailu elektrikoa bada, UNE-EN 81-1: 2001 araua; eta igogailu hidraulikoa bada, UNE-EN 81-2: 2001 araua. Halaber, 1997ko apirilaren 3ko ebazpenean ezarritako baldintzak bete behar dira. Ebazpen horretan ezartzen dira makina gelarik gabeko igogailuak jartzeko zein konpentsazio-neurri bete behar diren.

- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa.

- 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena bete beharko da.

- Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen dueña bete beharko da.

- Honako hondakin mota hauek behintzat bereizi behar dira:

o Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta harkaitza, zeramika (sabai faltsuen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, haiek gainerako harrizko materialen aprobetxamendua eragozten baitute)

o Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak,detergenteak, kolak, erretxinak, gehigarriak, etab.

o Hondakin ez arriskutsuak: beira, egurra, hondakin metalikoak, PVCzko elementuak eta beste plastiko batzuk, etab.

- Obra etxolak eta komun kimikoak ez dute oinezkoen edo autoen pasaera oztopatuko, eta jartzeko, Udaltzaingoak emandako jarraibideak bete behar



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

dituzte.

- Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:

1. Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoriarekin.

2. 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza eta eraispen-hondakinak eta materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

3. Ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) koloretako argazki.

4. Kalitate kontrolaren ziurtagiria.

5. Igogailuaren instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko agiria, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailak igorria.

Baldintza orokorrak

- Obrako hondakinak gai horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatuko dira, eta obra-eremua garbi mantenduko da. Obrak egikaritzeko espazio publikoari eragiten dioten edukiontziak, aldamioak, garabiak edo beste bitarteko osagarri batzuk jarri behar badira, dagokion udal-baimena eskatu beharko da. Dena den, behar bezala seinalatua geratu behar du, balizko arriskuei aurrea hartzeko. Seinaleak segurtasun eta apaintasun aldetik egoera onean mantentzeko ardura eskatzailearena da.

- Obra-hondakinak kentzerakoan, ahalegina egingo da eragozpenik ez sortzeko, hautsik ez harrotzeko eta harri-pilarik ez sortzeko, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko ditu kontratistak.

- Toki altuetatik hondakinak ateratzeko beharrezkoa da edukiontzirainoko hodi bat jartzea, eta hura toldo batekin estaltzea, hondakinak eta hautsa kanpora, bide publikora, atera ez dadin.



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak. Ezin da obra-lizentzian jasotzen ez den lanik egin. Onartutako proiektua aldatu nahi izanez gero, aldez aurretik udalaren baimena eskatu behar da. Horrela egin ezean, hirigintzako arau-haustetzat hartuko da.

- Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.

- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari aldez aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

- Eraikuntzako Segurtasun eta Osasun Araudian aurreikusitako neurriak hartuko dira. Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

- Obraren kontratistak lan arriskuen ebaluazioa egingo du (arriskuak identifikatu, baloratu, planifikatu, hartu beharreko neurriak zehaztu, babes neurriak, ... )

- Obrak enpresa bat baino gehiagok edo langile autonomo bat baino gehiagok esku-hartuko badu, exekuzio fasean segurtasunerako eta osasunerako teknikari koordinatzailea kontratatu beharko dute.

- Titularrak erantzukizun zibileko asegurua izan behar du, istripuak direnerako; edo obrak egiteko kontratatzen duen pertsonari hori izan dezan eskatuko dio.

- Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.”

HIRUGARRENA.- Aurkeztutako proiektuaren arabera, proiektuan agertzen den kontrataren aurrekontutik aterata, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 103.290,00 eurokoa litzateke.

LAUGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun esklusibopean.

BOSGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

SEIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

## 8.- ANDRA MARI LHII IKASTETXEAREKIN HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO HITZARMENA SINATZEA, ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK ZIKLOKO IKASLEAREN PRAKTIKALDIA ONARTZEA.

**Xedea**

ANDRA MARI LHII ikastetxearekin hezkuntza lankidetzarako hitzarmena sinatzea, administrazio eta finantzak zikloko ikaslearen praktikaldia.

**Aurrekariak**

Bakarra: Lankidetza hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak, ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

**Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

xedatzen du bere 5. artikuluan:

> “Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.

<u>Bigarrena</u>: Eskumenen gainean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, honakoa dio:

> “1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (…)

1. Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
2. Espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatzea.
3. Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
4. Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
5. Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
6. Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
7. Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa.
8. Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

9. Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
11. Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
12. Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
13. Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
14. Diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
15. Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
16. Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
17. Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.
18. Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa garraiobidea edozein dela antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerriaren barruan egiten bada osorik.
19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
20. Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
21. Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

22. Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
23. Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatze-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
24. Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
25. Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.
26. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
27. Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
28. Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.
29. Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.
30. Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.
31. Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

32. Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu motordun zein bestelako eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
33. Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
34. Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.
35. Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
37. Garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea."

Hirugarrena: Aitatutako justifikatze memoriaren arabera, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira, baina ez da jasotzen hitzarmenean zehazten den jarduna Udalaren zein ahalmenetan oinarritzen den, ez dira zehazten ez betetzeen ondorioak ezta hitzarmenaren jarraipena egiteko modua, 40/2015 Legearen 49. artikuluko b) e) eta f) atalek adierazi bezala.

Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio, ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2026ko otsailaren 26ko 1131. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta. Onarpen hau hitzarmena sinatu aurretik egin behar da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

<u>LEHENENGOA:</u> ANDRA MARI LHII ikastetxeko ikaslearen eskaerak onartzea:

- *Ikaslea: A.G.M*
- *Hasiera data: 2026ko maiatzak 11*
- *Bukaera data: 2026ko ekainak 1*
- *Praktikaldiko orduak: 128 ordu*
- *Kirol Saila*

<u>BIGARRENA</u>: ANDRA MARI LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko Hezkuntza-lankidetza hitzarmena onartzea.

<u>HIRUGARRENA</u>: Kirol Sailari erabaki honen berri ematea.

<u>LAUGARRENA</u>: Berrikuntza Sailari erabaki honen berri ematea, praktikaldia hasi aurretik Udal artxibotik eskatutako ikaslearentzako lanerako beharrezko baliabideak prestatzeko.

## 9.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

## 10.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "**20260428_TGB.mp4"** izeneko dokumentu digitalean, "**Tokiko Gobernu Batzarra 28-04-2026**" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espediente elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

**86e1cf3bf723a7315cf6fd9ff3eceb03fde8b79270ef214377741ec31b8a121b**

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan: https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua

*Orri oinean sinatzaileak eta datak*



CSV: 07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016106800M7A2V1S1K0V3

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2026 11:18:29

DOCUMENTO: 20261445992
Datea: 30/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia